



18 HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA



HELBURUA:

Hizkuntza eta kultura garapen pertsonal eta sozialaren ezinbesteko faktore gisa.

18 GJH honekin hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea lortu nahi da.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Kultura aniztasuna
- Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea
- Hizkuntza aniztasuna

Garapen Jasangarrirako **18. Helburuak** lantzen dituen helmuga eta xedeak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJH izango ditu lankidetzaren eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Kultura aniztasuna

Kultura udalerrriaren identitatea sendotu eta ezagutzera emateko tresna da. Kultur jarduna sustatzea, kultur ekintzak antolatzea eta zerbitzuak ematea da helburu nagusia. Zerbitzu hori sendoa eta kalitatezkoa izan dadin, ezinbestekoa da elkartegintza sustatzea, bide anitzeko ekarpenak indartzen baitu Kulturak ehuntzen duen gizarte-sarea. Hori horrela, tokiko forma eta adierazpen orok egitura bateragarria osatzen dute, eta lotura ikusezin horren ondorioz, ohiturak, praktikak eta izateko moduak gizarte-izpiritua landu eta osotzen dute.

Kulturak gizarteari bere buruaz hausnartzeko gaitasuna ematen dio heinean, Zarautzko kultur arloak derrigorrezkoa du kultur sormena bultzatzea, balioak bereizteko eta esanahi berriak bilatzeko gaitasuna lan dezaten herritarrek. Ildo horri jarraiki, arte diziplina ezberdinetako programazioak egin, kultur elkarteei dirulaguntzak eman, eta zerbitzu sendoak eskaini behar ditu.

Helburu horiei erantzuteko Zarautzen ondorengo kultur zerbitzuak daude:

- Haur eta helduen liburutegia
- Ikasgelak
- Informatika puntuak liburutegian
- Imanol Urbietaren udal Musika eskola

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

- Arte eta Historia Museoa (Santa Maria del Real parrokia)
- Udal argazki artxiboa
- Erakusketak

Gune edo espazioei dagokionez, ekitaldi eta emanaldi kulturalak burutzeko ekipamenduak honako hauek dira:

- **Arte eszeniko, musika, literatura, arte plastiko eta zineari** lotutako exhibizio jarduerak:
 - o Sanz Enea
 - o Modelo aretoa
 - o Lizardi aretoa
 - o Torre Luzea
 - o Merkatu plaza goiko solairua
 - o Villa Manuela
- Musika zein arte plastikoetako **formakuntzari** eskainitako espazioak:
 - o Ebro Etxea
 - o Villa Inmaculada
- Arte diziplina ezberdinetako praktikarako eta **sormenerako** espazioak:
 - o Villa Munda
 - o Vista Alegreko musika lokalak
 - o Abendaño 13ko lokala

Aipatzekoak da, baita ere, Photomuseum Argazki Euskal Museoa Fundazioak kudeatzen duen Photomuseum Museoa, Udalaren lagapeneko eraikinean kokatzen dena, eta besteak beste, Udalak babestua dagoena.

Urtean zehar kultura sustatu eta zabaltzeko ekimen ugari gauzatzen dira kultura herritarrengana gerturatuz. Zarautzen kultur programazio zabala eta anitza eskaintzen da Udalak berak zuzenean antolatutak, eta baita, herriko kultur eragileek antolatua ere.

Urtean zehar hainbat ekintza programatzen dira arte diziplina ezberdinei zein publiko ezberdinari erantzuteko asmotan.

Kultura, sormena eta euskara sustatzeko sariak ere antolatzen dira: Lizardi haur eta gazte literatura saria, eta Basarri bertsopaper saria.

Zarauzko kultur dinamika aberatsa da eta udalak antolatzen dituen kultur ekimenez gain, herrian dauden elkarte desberdinekin elkarlana sustatzen da baita ere, ekitaldi eta kultur jarduera ugari programatuz. Udalak kulturaren sustapenean lan egiten duten 18 elkarterekin lankidetzara jarraia egiten du urteroko dirulaguntzen bidez.

Udalak kultur ekimenak antolatzeko dirulaguntzak emateaz gain, zenbait ekipamendu erabiltzeko aukera ematen die hainbat taldera espazio hauetan: Abendaño, Vista Alegren, Villa Mundan edo Ebro Etxean, besteak beste.

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA


Euskara

Euskara Zarauzko nortasunaren eta kulturaren osagai garrantzitsua da. Zarautz herri euskaldunetan handiena da; 23.000 biztanle inguru ditu eta zarauztarren %74 euskalduna da. Zarautz euskararen arnagunea da (arnasguneak euskaldunen konzentrazio demografiko handia duten espazio fisikoak dira), baina arnagune diren ohiko herrien aldean, ezaugarri bereziak ditu: biztanle kopuruari dagokionez herri koskorra delako, turistikoa, zerbitzu emailea...

2016ko datuen arabera, **Zarauzko euskaldunek (%74,14) edo ia-euskaldunek (%10,97), %85,11** osatzen dute.


Datu hau Urola Kosta eskualdearekin alderatuz zertxobait baxuagoa bada ere (%87,03), Gipuzkoa (%73,27) eta EAEko (%60,66) datuen aldean nabarmen altuagoa da.

Biztanleria euskara-mailaren arabera (2016)



Iturria: Eustat, 2016

Euskara-mailaren bilakaera



Iturria: Eustat, 2016

Azken 25 urteetako eboluzioari erreparatuz, 1991tik 2016ra Zarauzko biztanle kopurua %27ko hazi da eta, hala ere, euskaldunen kopurua mantendu ez ezik, hazi egin da, %70,11tik %74,14ra. 1981tik 2016rako aldia kontuan hartzen badugu, berri, euskaldunen hazkundera are nabarmenagoa da: aldi horretan euskaldunen ehunekoak %11ko igoera izan baitzuen.

Adierazgarria da, baita ere, 2016an zarauztarren %54aren etxeko hizkuntza euskara dela eta %9ean euskara eta gaztelania.

Euskara ikasteko bide nagusiak ondorengoak dira: familia, haurren kasuan ikastetxeak eta helduetan euskaltegia, Zarautzen bi daudelarik: Udal euskaltegia eta AEK euskaltegia.


Euskararen **kale erabilerari** dagokionez, 2016an Soziolinguistika Klusterrak egindako neurketaren arabera, kalean nagusiki euskara erabiltzen da (%50,5), ondoren gaztelania (%47,1) eta beste hizkuntzak %2,1. Batez besteko horiek ateratzeko, malekoiko neurketak ere sartuta daude; baina malekoian kanpoko jende asko ibili ohi da, eta eremu hori kontuan hartu gabe, Zarauzko euskararen kale erabilera %57,6koa izango litzateke.

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

Kaleko erabilera eta hizkuntza gaitasuna alderatuta, ikus daiteke Zarautzen ere erabilera ezagutza baino nabarmen baxuagoa dela, eta beraz, nahiz eta herritar askok euskara jakin, gaztelania erabiltzen dutela kaleko elkarrizketetan. Dena dela, Txillardegik ingurune elebidunetan 'espero daitekeen erabilera' kalkulatzeko sortutako formularen arabera, %41,3koa da Zarauzko *erabilera isotropikoa* edo 'espero daitekeen erabilera', eta, beraz, hortik gora dago euskararen kaleko erabilera (%50,5).

Urola Kosta eskualdean euskararen kale erabilera %71,5ekoa zen 2011n, %32,7 Gipuzkoan eta %16,1 EAEn. Euskara gaitasunaren eta kale erabileraren arteko aldea aztertzen badugu, aldiz, alde hori 20 puntu ingurukoa zen Gipuzkoan eta EAEn; 12 puntu ingurukoa Zarautzen eta 4 puntukoa Urola Kosta eskualdean.

Adin tarteak kontutan hartuz, haur eta gazteak dira nabarmenki kalean euskara gehien erabiltzen dutenak, adinean gora egin ahala kalean gaztelania gehiago erabiltzen delarik



Iturria: Hizkuntza erabileraren kale-neurketa.
Soziolinguistika klusterra

Zarauzko udalerrian euskararen erabilera sustatzea

Udalerrian euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko Udalak **Euskara Sustatzeko Ekintza Plana 2018-2022** osatu du erreferentziazko dokumentu gisa, zeina udalaren plangintza den.

Bertan 3 helburu nagusi lantzen dira:

- *Euskararen jabekuntza*, 3 eremutan zentratzen dena: familian, irakaskuntzan eta helduen euskalduntze eta alfabetatzean.
- *Euskararen erabilera* sustatzea eremu desberdinetan: administrazioan, arlo sozioekonomikoan eta aisia eta kirolean, baita guneko geografiko euskaldunen sustatzea (UEMA). Honetarako bereziki zaindu behar direlarik kultura, aisia, kirola, teknologia berriak, hedabideak,...
- *Euskararen elikadura*, hizkuntza jarduna aberasteko ereduak eta edukiak sustatuz: liburugintza, kulturgintza, publizitatea, plangintza eta euskararen kalitatea, hedabideak eta informazio eta komunikazioaren teknologia

Horiez gain helburu estrategiko horiek aurrera eramateko beharrezkoak diren bi zehar lerro identifikatu dira baita ere:

- *Euskararen aldeko motibazioa* eta sentsibilizazioa
- Euskararen zabalkundea, barruko zein kanpoko proiektzioa sustatuz.

Udalerrian nortasuna den euskara ikusarazi eta ezagutzera emateko Udalak **ekimen** ugari burutzen ditu, aipatzekoa delarik, besteak beste, **Ongi etorri euskararen herrira egitasmoa**, **Turismo Departamentuarekin** eta Mankomunitatea eta Gipuzkoa Turismorekin batera eginikoa.

Egitasmo honen bidez, bisitariari herri euskalduna garelako erakutsi nahi zaie eta euskara ezagutzeko aukera eman, herri euskaldun batean egotearen esperientziaz goza dezaten.

Ekimenak 4 helburu nagusi ditu:

- Bisitariari euskararen gaineko ikuspegi erakargarriagoa, modernoa eta bizia helaraztea
- Bisitariari oinarrizko nozio batzuk ematea euskara erabil dezaten (hitzak, esaldiak...)
- Euskarak turismoan duen balioa indartuta, herriko merkataritza-ostalaritzako euskararen erabileran eragitea
- Herritarrek bisitarien aurrean duten hizkuntza-portaeran eragitea, eta hizkuntzaren arloan ahalduntzea

Besteak beste, honakoak egin dira:

- Merkataria eta ostalariak sentsibilizatzeko saioak antolatu:
 - o Lehen hitza euskaraz egitera animatu
 - o Herriko datu soziolinguistikoa eman
 - o Bisitarien ezaugarrien berri eman: Zarauzko nortasuna eta kultura ezagutzera datoz
- Ostalari eta merkatariei oinarrizko euskara ikastaroa eskaini
- Bisitarietzako oinarrizko hiztegia osatu eta banatu
- Mahai gainekoak banatu ostalaritzako establezimenduentzat. Bertan euskarazko oinarrizko hitzak eta esaldiak jasotzen dira, bisitariari horiek erabiltzeko gonbita eginez
- Komunikazioa: kanpainaren zabalkunderako panelak eta bideoak prestatu
- Merkataritza eta ostalaritza establezimenduen ate eta leihoetan jartzeko binilo txikiak
- ...

Horretaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) soziolinguistikari buruzko saioak ematen dira 2014tik hona. Gazteak estrategikoak dira euskararen normalizazioan, eta soziolinguistikaren inguruko diskurtso eta prestakuntza egoki batek euskararen aldeko hautua egiten lagun diezaiekeela iruditzen zaigu, eskolako eremutik kanpo ere, eremu informalean euskara erabil dezaten.

2021/2022 ikasturtean Udalak apustu sendoa egin du eta egitasmoa DBH guztira zabaltzeko proiektu integral bat diseinatu du, Zarauzko ikastetxeekin elkarlanean. Ikastetxeetako eragileekin elkarlanean, ikasleekin landu diren soziolinguistikako gaiak zerrendatu dira, eta horiek ikasmaila lantzeko plangintza egin da. Ikasmaila bakoitzaren bukaeran ikasleek gaiari lotuta zer proiektu landuko duten ere aurreikusi da. Ekimen honen bidez, hizkuntzaren gaia euskararen ikasgaitik haratago, ikastetxearen ikuspegi orokor batetik landu da, beste zenbait arloekin elkarlanean (kultur aniztasuna, herriaren historia, herritarren eskubideak, nortasuna, garapen iraunkorra...).

Zarauzko Udalak **herrian lantzen diren proiektu edo planen prozeduretan bertan proiektu eta plan horiek euskararen egoera soziolinguistikoa izan dezakeen inpaktua neurtzen du, prebentzioaren ikuspegitik**. Besteak beste, hirigintza arloan, Hegoalde eremuko proiektuaren eragin linguistikoa ebaluazioa (ELE) egin zen, eta proiektu horrek Zarauzko egoera soziolinguistikoa hizkuntza-inpaktu esanguratsurik ez zegoela ondorioztatu zuen. Horrekin batera, Salberdingo etxe-erosleen jatorriaren inguruko datuak ere aztertu ziren: erosleen %75 zarauzarrak ziren, eta beste %20 gipuzkoarrak, eta, beraz, horrek ere ez dirudi aparteko eragin kaltegarri sortuko duenik herriko euskararen erabileran. Dena dela, prebentzioaren ikuspegitik halako proiektu eta planekin adi egotea dagokio udalari, aukera ez ezik arrisku ere izan litekeelako euskararen erabilerari dagokionez.

Udal barruan euskararen erabilera normalizatzea

Udal barruko jarduna euskalduntzeari dagokionez, berriz, **Euskararen Erabilera Normalizatzeke Plana** du onartuta Zarauzko Udalak 2018-2022 aldirako. Udal mailan euskara zerbitzu hizkuntza izateaz gain, lan hizkuntza izatea da helburu nagusia, euskararen erabilera eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatu ahal izateko. Kudeaketa aurreratua oinarri hartuz, eta Bikain ziurtagiriaren egitura erabilita, hizkuntza irizpide batzuk definitu dira eta udal osoaren ardura da horiek ezartzea, Euskara Departamentuaren laguntzarekin.

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako baldintzak eskaini nahi dizkie Udalak, euskarazko zerbitzuak ugarituz eta bere eraginpeko arlo eta zerbitzuetan hizkuntza-baldintzak jarri, euskararen erabilera eta presentzia sustatzeko. Honetarako, hizkuntza-baldintzak txertatzen ditu diru-laguntzetan, kontratazioetan, baimenetan...

Udalaren erronka nagusia da hizkuntza kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea. Horretarako, udaleko eragile guztiek (arduradun tekniko, politikari eta gainerako langileek) bere egin behar dute euskararen normalizazioa, eta beren ohiko funtzionamenduan eta kudeaketa tresnetan txertatu. Azken urteetan aurrerapauso handiak eman ditugu zentzu horretan, eta aurrerantzean ere bide horretan jarraituko dugu lanean.

Bestalde, Udalak prebentzioaren ikuspegitik udalerriko euskararen egoera soziolinguistikoan eragin kaltegarria izan dezaketen proiektu eta planen hizkuntza-inpaktua aztertzen du, behar izanez gero, ondoren zuzentzeko edo konpentsatzeko neurriak hartzeko.

Hizkuntza aniztasuna

2022ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, zarauztarren %5,54 atzerritarrak dira (eta %8,39 atzerrian jaioak), eta etorkizunean ere etorkinak iristen jarraituko dutela aurreikusten da. Une honetan 61 herrialdeetako biztanleak ditugu Zarautzen, eta gutxienez 40 hizkuntza hitz egiten dira.

Beraz, estrategikoa izango da herritar horiek ere euskarara gerturatzea. Hizkuntza aniztasun hori oinarri hartuta, eta kulturartekotasuna osatzen duten 3 printzipioak (aniztasuna errespetatzea, herritarren arteko aukera berdintasuna eta herritar guztion arteko elkarrekintza positiboa) aintzat hartuta, etorri berrien hizkuntza aitortu, eta euskarara gerturatzeko hainbat jardura egiten ditugu:

- **Herritarren harrera euskaraz:** euskarari lehentasuna ematen zaio udaletik herritarrei egiten zaien harreran. Berdin da herritarren euskara maila zein den, horrela gutxienez lehendabiziko hitza, eta agurrak euskaraz dira beti.
Bai Herritarren Arreta Zerbitzu orokorrean eta baita zerbitzu espezializatuetan ere: gizarte Langilea, immigrazio teknikaria eta abar.
- **Harrera gida:** Herritar berrientzat harrera-protokoloan edo 'Ongi Etorri' gidan, garrantzia berezia du euskarak, bai edukitan eta baita, sinbolikoki bada ere, gida horretan euskarazko bertsioak duen presentzian.
- **AISA euskara-harrera ikastaroak** eskaintzen ditugu. 68 orduko ikastaro trinkoak dira, eta euskara eta harrera uztartzen ditugu bertan. Ikastaro horietan euskarari buruzko hainbat informazio, datu, aholku eta baliabideren berri ematen zaie, lege aldetik duen babesa, gizartean duen garrantzia eta tokia, etorkizunerako prospekzioa...
- **Harrera pertsonalizatua:** Erroldatzera datozen etorri berriei immigrazio teknikariarekin elkartzeko aukera eskaintzen zaie, eta beraz, hala nahi duten etorri berriei **harrera pertsonalizatua** egiten die udaleko **immigrazio teknikariak**, herriko baliabideen berri eta gizarteratze ibilbidea aholkatzeko. Hitzordu horretan euskarak garrantzia du eta AISA euskara-harrera ikastaroari buruzko informazioa ematen zaie.
- **Aitortza publiko-sinbolikoak** ere egin dizkiegu etorri berrien taldeei, hizkuntza aniztasunari gorazarre eginez bizilagun berriak euskarara gerturatzeko eta sensibilizazioa lantzeko: herriko gainerako beste hizkuntza gutxituei aitortza (2013), Korrikan (2014), kultur arteko irakurketa (2021),...

Horretaz gain, gazteen artean hizkuntza aniztasuna lantzeko ere baliatzen ditugu, besteak beste, DBHn lantzen ditugun soziolinguistika saioak eta etorri berrientzako euskara indartzeko saioak.

EKIMEN ESANGURATSUAK

- **Modelo aretoko** programazioa: urtarrila-ekaina eta iraila-abendua. Bertan musika, dantza, antzerkia familian, helduentzako antzerkia....
- Udako programazioa kalean: **Kalerki**, antzerkia familian
- **Erakusketa programazioa**: Sanz Enean eta Torre Luzean.
- **Liburutegiko jarduerak**
- **Elkarlanean antolatzen diren ekimenak**:
 - o Literaturia eta Adarretatik jaialdiak.
 - o Akordeoiarentzako Francisco Escudero Nazioarteko Konposizio Lehiaketa.
 - o Zarauzko Musika Bandaren kontzertuak
 - o Zarautz Abesbatzaren urteko kontzertuak
 - o Photomuseum fundazioarekin Argazki Bilera.
 - o Nahia elkartearekin azokak
 - o Artezaleak: artisauaren eguna.
 - o Jalgi: haurrentzako inauteriak
 - o Zarautzon: dibulgazio-hitzaldi eta ikastaroak Modelon.
- **Euskara eta literatura sustatzeko ekimenak**:
 - o Lizardi Saria
 - o Basarri bertsopaper saria
- **Santa María del Real parrokiako aztarnategiaren eta Arte eta Historia museoaren sustapena**, Zarauzko lehen nekropoliaren aztarnak daudelarik bertan
- **“Ongi Etorri Euskararen Herrira” egitasmoa, Turismo Departamentuarekin** eta Urola Kosta Udal Elkartearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera eginikoa. Egitasmo honen bidez, bisitariei herri euskalduna garela erakutsi nahi diegu eta euskara ezagutzeko aukera eman, herri euskaldun batean egotearen esperientziaz goza dezaten.
- **Soziolinguistika saioak antolatzen dira DBHko ikasleekin** (Udala, Ikastetxeak eta Berritzegunearekin elkarlanean). Gazteei soziolinguistikaren inguruko prestakuntza eskaintzea da helburua, euren hizkuntza portaeretan eragin eta euskararen aldeko hautua egin dezaten lortzeko.
- Udalak Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle etorri berriei zuzendutako **euskara indartzeko saioak** eskaintzen ditu, haien euskararen ikaskuntza prozesua azkartzeko.
- **Hiztun Ekologistaren Dekalogo**a prestatu eta zabaltzeko da herritarrak hizkuntzaren inguruan sentsibilizatzeko. Herritarrak ahaldundu eta aktibatzea da helburua, haien euskararen erabilera eragiteko.
- Immigrazio sailarekin elkarlanean, **etorri berrientzako harrera ikastaroak** antolatzen dira.
- Hainbat proiektu eta planek aldaketak ekar ditzakete herriko biztanle kopuruan, bisitari kopuruan edo egoera soziolinguistikoan, eta, Zarauzko Udalak **herrian lantzen diren proiektu edo planen prozeduretan bertan proiektu eta plan horiek euskararen egoera soziolinguistikoan izan dezakeen inpaktua neurtzen du, prebentzioaren ikuspegitik**.
- Udal barruko erabilera planari begira, **hizkuntza irizpideak txertatzea** kontratazioetan; dirulaguntzetan; baimenetan; udalak antolatzen dituen ikastaro, jarduera eta abarretan...



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Herri euskalduna dela aipatu da, euskal kultura, literatura,... sustatzen dituen herri kultua.
- Egun dauden kultura azpiegiturak nahikoak eta egokiak ez direla komentatu da, hauen inguruko azterketa egitea beharrezkotzat jotzen delarik. Kultura azpiegiturak zaindu ez direnaren sentsazioa dago.
- Zarautzek duen tamaina kontuan hartuz, kultura eskaintza edo agenda nahikoa ez dela aipatu da. Orokorrean herritarrek kultura ekitaldietan parte hartzen badute ere, kultura eskaintza zabaldu eta ezagutzea eman beharko litzateke.
- Zarautz herri euskalduna da, baina euskara eskoletara mugatzen ari denaren sentsazioa eta kezka dago, erabilera behera egiten ari dela, gazteen artean nabaria delarik, baina baita ostalaritzan eta merkataritzan ere.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, ondorengo lan-ildo edo joera nagusiak identifikatzen dira:

- Kultura herriaren ikur izatea, kultur adierazpide ezberdinak zein kultur aniztasuna kontuan izango duen herria izan. Kultur ikuspegitik aberatsa eta anitza.
- Udalerrian kultur ekipamendu hausnarketa egin eta kultur ekipamenduak egungo errealitatera egokitu. Kulturaren ikuspegitik etorkizunera begira dauden erronka, norabide edo helburu nagusiak zeintzuk diren identifikatu .

Estrategiaren garrantzia azpimarratu behar da kultur jarduera-eremuan, emaitza egokiak lortzearen. Plangintzaren hori ez da jarraibideen programa soilik izango; gai bateratzaileak izanik, koherentzia eta zentzua emango dio erakundearen erabakiei, burubideak hartzea sinplifikatzeko, batik bat.

- Euskara Zarautzen marka bihurtzea, eta herritarrak, herriko eragile eta erakundeak aktibatzea hori hala izan dadin
- Zarauzko Udalak euskararen normalizazioan aitzindaritza hartzea, eta eredu izatea Gipuzkoako gainerako herrien aurrean eta Zarauzko herritarren aurrean. Zarautzek duen egoera soziolinguistikoak eta herriaren ezaugarriak horretarako aukera ematen baitu (herri euskaldunetan handienetarikoa da, turistikoa, zerbitzu-emailea, gazteentzat erakargarria,...)
- Euskararen normalizazioa Udalaren kudeaketa orokorraren parte bihurtzea, politikari zein teknikariek euskararen normalizazioa bere eginez, eta Udalaren esku dauden baliabideak erabiltzea euskararen normalizazioa sustatzeko (hizkuntza irizpideak jarriz eta jarraipena eginez kontratazioan, dirulaguntzetan, baimenetan...)
- Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako baldintzak eskaintzea, eta horretara animatzea, gero eta zerbitzu gehiago euskaraz eskainiz (kiroldegiko zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzea...). Horretarako, estrategikoa izango da eskolaren jarraipena diren eskolaz kanpoko jardueretan (aisialdian, kirolean...) eta arlo sozioekonomikoan euskara sustatzea:

HIZKUNTZA ETA KULTUR ANIZTASUNA

- Enpresetan euskararen erabilera sustatu. Adibidez, Lanbide heziketa dualeko ikasleek praktikak euskaraz egin ditzaten sustatu, enpresei konpromiso zehatzak eskatuz
- Udalerriko merkatari eta ostalariekin elkarlanean herrian euskararen erabilera sustatzea.
- Turismo arloan, euskara ere izan dadila gure turismo-eskaintzaren ardatz, eta turismo sektoreak ere euskararen erabilera ikusgarri egiteko neurriak har ditzala sustatzea
- Gazteen erabileran eragitea, eskolaz kanpoko jardueren bidez euskara erabiltzeko eta hobetzeko aukerak ematea (kirolean, aisian, teknologian,...) euskara ikastea balioan jarritz.
- Euskara teknologia eta berrikuntzaren atalera zabaltzea.
- Herritarrei begirako sentsibilizazio eta motibazio saioak antolatzea.
- Herritarren hizkuntza ohiturak aldatzeko eta gizarte-aktibazioa sustatzeko ekimenak martxan jartzea, edo laguntzea (Euskaraldia, Korrika...)
- Euskararen ezagutza unibertsalizatzea eta etorri berriak euskarara gerturatzea. Horretarako, metodologia eta estrategia berriak landu beharko ditugu, euskaltegiekin elkarlanean
- Udalaz kanpoko erakundeekin eta herriko erakunde eta elkarteekin elkarlanean aritzea (ikastetxeak, kultur eta kirol elkarteak, etorkinen elkarteak, euskaltegia, guraso elkarteak, jubilatutako elkarteak...). Atal honetan toki berezia izango dute ikastetxeek, aukera zabala eskaintzen dutelako herriko gazteengan eragiteko (formazio osagarria eskainiz...), baita euren gurasoekiko komunikazioa lantzeko ere
- Zarautz euskararen arnasmune da, eta aurrerantzean ere, Zarautzko egoera soziolinguistikoan era negatiboan eragin dezaketen planak eta proiektuak aztertzen jarraitu behar dugu, eta eragin hori zuzentzeko edo konpentsatzeko neurriak hartuko ditugu, prebentzioaren ikuspegitik